

JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAKO ARTEZKARITZA-KONTSEILUAK 2018KO MAIATZAREN 22AN EGINDAKO OHIKO BATZARREKO AKTA	ACTA DE LA REUNION ORDINARIA CELEBRADA POR EL CONSEJO RECTOR DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZON, EL DIA 22 DE MAYO DE 2018
---	---

BERTARATU DIRENAK
PRESIDENTEA

ASISTENTES
PRESIDENTE

Dña. Elena Coria Yanguas and.

BATZARKIDEAK

VOCALES

D. Joseba Arregi Martinez jn.
D. Koldo Iturbe Mendilibar jn.
D. Alvaro Gonzalez Perez jn.
Dña Keltse Eiguren Alberdi and.
D. Ignacio Uriarte Gorostiaga jn.
D. Miguel Ibabe Botella jn.
Dña. Susana de Cos Yañez and.
Dña. Susana Andollo González and.
D. Enrique Olaso García jn.
Dña. Paula Amieva Clemente and.
Dña. Maite Arraiza Aramendia and.
D. Oier Iturralde Fernandez jn.
Dña. Teresa Escalante Reina and.
D. Santiago Sainz Robles jn.

IDAZKARIA

SECRETARIA

Dña. Arantza Minguez Trascasa and.

Aipatutako kideak etorri dira, eta Elena Coria Yanguas andrea presidente dela, batzarra 17:30an hasi da.

Con la presencia de los vocales reseñados al margen, y bajo la presidencia de Dña. Elena Coria Yanguas, dió comienzo la reunión a las 17:30 horas.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak eta Nerea López Guijarrubia andreak jankinarazi dute ezin izango direla etorri. Haien ordez Oier Iturralde Fernández jauna etorri da.

Excusa su no asistencia D. Ibon Rodriguez Larrinaga y Dña. Nerea López Guijarrubia. En su lugar acude Oier Iturralde Fernández.

Raquel González Diez-Andino andreak jakinarazi du ere ezin izango dela etorri.

Excusa también su no asistencia Dña. Raquel González Diez-Andino.

08.- Aurreko bileraetako aktak onestea

2018 otsailaren 20ko eta otsailaren 28ko batzarretako aktak onetsi dira.

08.- Aprobación de las actas de las reuniones anteriores

Se aprueban las actas de las reuniones del 20 de febrero y 28 de febrero de 2018.

09.- Udalari Udal Egoitzaren 2017. ekitaldiko urteko Kontua igortzea, Kontu Orokorrean sartzearen ondoretarako

Presidenteak jakinarazi duenez, Artezkaritza Kontseiluko kideei espedientea igorri zaie kontu orokorrarekin Udalari igortzeko.

09.- Elevación al Ayuntamiento, para su inclusión en la Cuenta General, de la Cuenta anual de la Residencia Municipal para el ejercicio 2017

La Presidenta informa que se ha remitido a los miembros del Consejo Rector el expediente con la cuenta general para su elevación al Ayuntamiento.

Ez da bozketarik egin gainerako erakunde autonomoen artezkaritza kontseiluetan jokatu den moduan.

No se procede a la votación tal y como se ha procedido en los Consejos rectores del resto de Organismos Autónomos.

10.- 2018. urteari dagokion Aurrekontu Proiektua onesteko proposamena

Dagozkion azalpenak eman ostean, presidenteak proposamena bozkatzeko agindu du, eta handik honako emaitza hau ateratu da: EAJ-PNVren aldeko sei boto, PSEren aldeko beste bat, PPren 2 abstentzio, Ciudadanosen abstentzio 1, EH BILDUren 3 abstentzio eta GUK-Getxoren kontrako 3 boto.

10.- Propuesta de aprobación del Proyecto de Presupuesto correspondiente al año 2018

Tras las explicaciones pertinentes la Presidenta somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor del PNV, 1 voto a favor del PSE, 2 abstenciones del PP, 1 abstención de Ciudadanos, 2 Abstenciones de EH Bildu y 3 votos en contra de GUK-Getxo.

Horren ondorioz, eta presidenteak hala proposatuta, gehiengo batez honako hau erabaki da

En consecuencia, y a propuesta de la Presidenta, se acordó por mayoría el siguiente

ERABAKIA

LEHENENGOA: Udalari aurkeztea "Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza" erakunde autonomoaren 2018. urterako aurrekontuaren proiektua, bidezkoa bada onetsi dezan. Haren zenbateko osoa **5.384.843,00 euro** da, eta honela banakatzen da dirusarreraren eta gastuen orrian:

ACUERDO

PRIMERO: Elevar al Ayuntamiento para su aprobación, si procede, el proyecto de Presupuesto, para el año 2018, del Organismo Autónomo " Residencia Municipal Sagrado Corazón de Jesús", cuyo importe total asciende a **5.384.843,00 €** y cuyo desglose del Estado de Ingresos y Gastos es el siguiente

DIRUSARREREN ORRIA / ESTADO DE INGRESOS

A) ERAGIKETA ARRUNTAK/ OPERACIONES CORRIENTES

1. ZUZENKO ZERGAK 1. IMPUESTOS DIRECTOS	
2. ZEHARKAKO ZERGAK 2. IMPUESTOS INDIRECTOS	
3. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK 3. TASAS Y OTROS INGRESOS	3.176.105,00 €
4. TRANSF. ARRUNTAK 4. TRANSF. CORRIENTE	2.196.477,00 €
5. ONDARE DIRUSARRERAK 5. INGRESOS PATRIMONIALES	1.298,00 €

B) KAPITAL-ERAGIKETAK/ OPERACIONES DE CAPITAL

6. INBERTSIO ERREALEN BEST. 6. ENAJ. INVERSIONES REALES	
7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK 7. TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	
8. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAK. 8. VARIACIÓN ACTIVOS FINANC.	10.963,00 €
9. FINANTZA-PASIBOEN ALDAK. 9. VARIACIÓN PASIVOS FINANC	

DIRUSARRERAK: GUZTIRA / TOTAL INGRESOS 5.384.843,00 €

GASTUEN ORRIA / ESTADO DE GASTOS

A) ERAGIKETA ARRUNTAK/ OPERACIONES CORRIENTES

1. LANGILEEN ORDAINSARIAK 1. REMUNERACIÓN DEL PERSONAL	4.201.623,00 €
2. ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA 2. COMPRA DE BIENES CORRIENTES	1.172.167,00 €
3. INTERESAK 3. INTERESES	90,00 €

B) KAPITAL-ERAGIKETAK/ OPERACIONES DE CAPITAL

6. INBERTSIO ERREALAK 6. INVERSIONES REALES	
7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK 7. TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	
8. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAK. 8. VARIACIÓN ACTIVOS FINANC.	10.963,00€
9. FINANTZA-PASIBOEN ALDAK. 9. VARIACIÓN PASIVOS FINANC	

GASTUAK: GUZTIRA / TOTAL GASTOS 5.384.843,00 €

11.- Egoitzaren eraikina egokitzeko obren kontratuaren adjudikatzeko proposamena

Bidezko azalpenak eman ondoren, presidenteak proposamenaren bozketarako deia egin du. Hona hemen emaitzak: EAJren aldeko 6 boto, PSEren aldeko boto 1, PPren 2 abstentzio, Ciudadanosen abstentzio 1, EH BILDUren 3 abstentzio eta GUK-Getxoren 3 abstentzio.

Proposamena aurrekoaren berdina denez ez da berriro errepikatuko.

ERABAKIA

LEHENENGOA: Baztertu egin da "E3D 2008, S.L." enpresa, B95670832, GETXOKO UDAL EGOITZAKO ERAIKINA EGOKITZEKO OBREN adjudikaziorako lizitaziotik, administrazio publikoen obren kontatista gisa behar bezala sailkatuta egotea egiaztatutako ziurtagiria ez aurkezteagatik. Hori ezinbesteko betekizuna izango da Administrazio Klausula Pleguaren 18 apartaduan eta SPKLTBren 66.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA: "Construcciones y Reparaciones MONTEGUI, S.L." eta "BIKANI, obras especiales, edificación e infraestructuras, S.A.U." enpresek egindako parte hartzeko eskaerak kanpoan geratu dira, "B" eta "C" gutun-azalak ez aurkezteagatik.

11.- Propuesta de adjudicación del contrato de las obras de adecuación del edificio de la Residencia

Tras las explicaciones pertinentes la Presidenta somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor del PNV, 1 voto a favor del PSE, 2 abstenciones del PP, 1 abstención de Ciudadanos, 2 Abstenciones de EH Bildu y 3 abstenciones de GUK-Getxo

En consecuencia, y a propuesta de la Presidenta, se acordó por mayoría el siguiente

ACUERDO

PRIMERO: Excluir a la empresa "E3D 2008, S.L.", con CIF B95670832, de la licitación de las OBRAS DE ADECUACIÓN DEL EDIFICIO DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL DE GETXO por no haber presentado certificación de estar debidamente clasificado como contratista de obra de las Administraciones Públicas, requisito obligatorio de acuerdo al apartado 18 del Pliego de Cláusulas Administrativas y al artículo 66.1.a) del TRLCSP.

SEGUNDO: Dar por retirada la solicitud de participación de las empresas "Construcciones y Reparaciones MONTEGUI, S.L." y "BIKANI, obras especiales, edificación e infraestructuras, S.A.U." por no haber presentado los sobres "B" y "C".

HIRUGARRENA: "BYCAM, Servicios, Edificios e Infraestructuras, S.A." enpresari (IFK: A-48716377) esleitzea GETXOKO UDAL EGOITZAREN ERAIKINA EGOKITZEKO OBRAK, 602.664,97 euroko prezioan, BEZ barne, 498.070,22.-€tan gehi BEZaren % 21ari dagozkion 104.594,75.-€tan banatuta. Honakoa da balorazio-taula

TERCERO: Adjudicar a "BYCAM, Servicios, Edificios e Infraestructuras, S.A.", con C.I.F.: A-48716377 las OBRAS DE ADECUACIÓN DEL EDIFICIO DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL DE GETXO, por un precio de 602.664,97.-€, IVA incluido, desglosado en 498.070,22.-€, más 104.594,75.-€ correspondiente al 21% de IVA, y de acuerdo con el siguiente cuadro de valoración:

	BYCAM SERVICIOS, EDIFICIOS E INFRAESTRUCTURAS, S.A.	U.T.E. INDENORT PV, S.L. Y PROVIDER IBERICA, S.L	CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN, S.A.I	ZAMAKOA, S.A.
OBRA EGITEKO IRIZPIDEAK // CRITERIOS EJECUCIÓN OBRA	16	12	8	10
OBRA BURUTZEKO MODUA // FORMA REALIZAR OBRAS	30	27	30	30
ERABILITAKO BITARTEKOAK // MEDIOS EMPLEADOS	3	3	3	2
ESKAINTZA EKONOMIKOA // OFERTA ECONOMICA	48	51	49	47
GUZTIRA TOTALES	97	93	90	89

HIRUGARRENA: Kontratuaren gauzatze epea 5 hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzeko aktan sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

TERCERO: El plazo de ejecución del contrato será de 5 meses, a contar desde la suscripción del acta de comprobación del replanteo.

LAUGARRENA: Esleipen-hartzaileak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategineko 156 artikuluan adierazitakoari jarraituz, Getxoko Udal Egoitzako bulegoetara –Ormetxe kalea, 22– joan beharko du kontratua agiri administratibo batean formalizatzeke.

CUARTO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas de la Residencia Municipal de Getxo, sitas en la calle Ormetxe 22, para formalizar el contrato en documento administrativo.

12.- Ordainketaren epeak betetzearen berri ematea: 2017ko laugarren hiruhilekoa eta 2018ko lehenengo hiruhilekoa

12.- Dación de cuentas sobre el cumplimiento de los plazos de pago: cuarto trimestre de 2017 y primer trimestre de 2018

Gure hornitzaileei legeriak ezartzen dituen epeetan 2017ko laugarren hiruhileko eta lehenengo

Se ha remitido a los miembros del Consejo Rector los informes, correspondientes al abono de las

hiruhileko fakturak ordaintzeari buruzko txostenak bidali zaizkie Batzar Artezkariaren kideei.

facturas a nuestros proveedores en los plazos que marca la legislación, del cuarto trimestre de 2017 y del primer trimestre del año 2018.

Kontseiluari informazio guztia eman zaio.

El Consejo quedó informado.

13.- 2018ko otsailaren, martxoaren, apirilaren et amaiatzaren egoiliarren errollaren berri ematea

13.- Dación de cuentas del Padrón de residentes correspondiente a febrero, marzo, abril y mayo de 2018

(2018/02/01) OTSAILEKO ERROLDA / PADRÓN DE FEBRERO (01/02/2018)			
HILABETEA / MES	Sarrerak / Ingresos	Bajak / Bajak	Guztira / Total
Udal plazak // Plazas municipales	01	01	10
DFB // A.E.I. DFB	0	0	04
GUZTIRA / TOTALES	0	0	14

(2018/03/01) MARTXOKO ERROLDA / PADRÓN DE MARZO (01/03/2018)			
HILABETEA / MES	Sarrerak / Ingresos	Bajak / Bajak	Guztira / Total
Udal plazak // Plazas municipales	10	01	19
DFB // A.E.I. DFB	0	0	04
GUZTIRA / TOTALES	0	0	23

(2018/04/01) APIRILEKO ERROLDA / PADRÓN DE ABRIL (01/04/2018)			
HILABETEA / MES	Sarrerak / Ingresos	Bajak / Bajak	Guztira / Total
Udal plazak // Plazas municipales	0	0	19
DFB // A.E.I. DFB	0	0	04
GUZTIRA / TOTALES	0	0	23

(2018/05/01) MAIATZEKO ERROLDA / PADRÓN DE MAYO (01/05/2018)			
HILABETEA / MES	Sarrerak / Ingresos	Bajak / Bajak	Guztira / Total
Udal plazak // Plazas municipales	2	3	18
DFB // A.E.I. DFB	0	0	04
GUZTIRA / TOTALES	0	0	22

	BESTE PLAZARI BURUZKO INFORMAZIOA / INFORMACIÓN SOBRE OTRAS PLAZAS			
	OTSAILTIK MAIATZERA / DE FEBRERO A MAYO			
HILABETEA / MES	Urtarrilean / Enero	Sarrerak / Ingresos	Bajak / Bajak	Guztira / Total
BFA HITZARMENA / CONVENIO DFB	101	11	16	96
GUZTIRA / TOTALES	101	11	16	96

14.- Erreguak eta galderak

Lehendakariak azaldu du GUK-Getxoren bi idatzi jaso dituela. Horietako bat otsailekoa da, eta erantzunak prestatu ditu; bidali egingo dizkie. Bestea duela gutxikoa da. GUK Getxok galderak irakurri ditu eta lehendakariak erantzun egin ditu.

Familien Foroarekin aldizka batzarrak egiten ote diren galdetuta, lehendakariak baietz erantzun du, urtean gutxienez hiru bilera egiten direla. Foroaren bitartez mota guztietako gaiak plazaratzen dira, eta modu puntualean egoitzaren berri emateko kanal gisa ere funtzionatzen du.

Egoiliarren zein senideen gogobetetze maila neurtzeko ebaluazio motaren bat ote dagoen galdetuta, lehendakariak baietz erantzun du, bi urterik behin gogobetetze inkesta egiten dela. Hurrengo 2019an izango da.

Egoiliarren eta senideen kexak ere jasotzen diren galdetu du. Lehendakariak baietz erantzun du, kexak zein iradokizunak eta zorion mezuak jasotzeko prozedura dagoela.

Azkenik, GUK-Getxok langileen ratioaren inguruan galdetu du. Lehendakariak azaldu du zuzeneko arretako langileen kasuan eskatzen den 0,36ko ratioaren gainetik gaudela, eta 0,49ko ratioa daukagula. %80 zaintzaileena izan behar da. Egoitzaren kasuan ehunekoa %88ra iristen da.

EH BILDUTik azaldu dute bere garaian elikadura

14.- Ruegos y Preguntas

La Presidenta comenta que ha recibido dos escritos de GUK-Getxo. Uno de ellos es de febrero y del que tiene preparado las respuestas y les enviará. El otro es reciente. GUK Getxo lee las preguntas y la Presidenta va contestando

Respecto a si existen reuniones periódicas con el Foro de Familias la Presidenta responde que sí, que mínimo se realizan tres reuniones anuales. A través del Foro se plantean cualquier tipo de cuestiones y sirve de cauce también para informar puntualmente de la marcha de la Residencia.

En relación a si existe algún tipo de evaluación para medir el grado de satisfacción tanto de los residentes como de sus familiares, la Presidenta responde que sí, que cada dos años se hace una encuesta de satisfacción. La próxima será en 2019.

Se pregunta también si se recogen las quejas de las y los residentes y familiares. La Presidenta responde que sí, que existe un procedimiento tanto de recogida de quejas, como de sugerencias y felicitaciones.

Por último, GUK-Getxo pregunta acerca del ratio de trabajadoras. La Presidenta informa que nos encontramos por encima del 0,36 que se exige para el personal de atención directa, teniendo un ratio de 0,49. El 80% debe corresponder a personal cuidador. En el caso de la Residencia ese porcentaje se eleva a 88%.

Desde EH BILDU comentan que en su día

zerbitzuari buruzko idatzi bat igorri zutela. Horri erantzunez, lehendakariak azaldu du kontratua loteetan ez banatzea erabaki dela, eraginkortasun arrazoiak direla medio. Getxoko tokiko saltokiak saritzea ere ezinezkoa da, legeak ez duelako horrelakorik baimentzen.

“0 kilometroko” produktuei dagokienez nabarmendu behar da ez dagoela produktu horien inguruko ziurtagiri ofizialik; bidenabar, produktu horiek gehitzea ezinezkoa izango litzateke lege aldetik, lehiakortasuna urritu egingo litzatekeelako.

Nutrizionistaren kasuan, ez da momentu bakar batean ere planteatu egoitzako Lanpostuen Zerrendan gehitzea, bere laguntza ez delako egunero behar, soilik modu puntualean. Garrantzitsua da menu tipoak nutrizionista batek prestatuak izatea, eta une jakin batean zenbait kontsulta egin ahal zaizkio, baina ez da beharrezkoa bera egoitzan bertan egotea.

Gai horiek guztiak udaleko Kontratazio Atalarekin kontsultatu dira.

Gerenteak azaldu du beste batzuetan elikagaien hornidura loteka egin dela, baina lizitaziora ateratako kontratu mota eraginkorragoa eta osatuagoa da, prozesu osoa bateratzen baitu. Alde batetik, nutrizionistaren zerbitzuak menu egokiak izatea bermatzen digu, eta, beste aldetik, egoitzan AAKPK sistemaren kontrol eta jarraipena egitea lagungarria da elikadura segurtasun eta kalitatean egin beharreko kontroletan; kontrol horiek nahitaezkoak dira Osasun Sailak hala aginduta, eta adjudikaziodunak prozesu osoa kontrolatzen du, lehengaitik hasi eta produktuaren amaierako prestaketara arte, hainbat analitikaren bitartez.

GUK-Getxok hartu du hitza eta azaldu du saltoki txikiek ere AAKPK sistema bete behar dutela. Gerenteak baietz erantzun du, jakina, baina gehitu du egoitzak kontratu mota honekin lortzen duela lehengaia hornitzen duen lizitatzailer berberak AAKPK prozesu osoa kontrolatzea, ez soilik banatzen duen lehengaia, baita dagoeneko prestatu eta bukatutako produktua ere.

mandaron un escrito acerca del servicio de alimentación. En respuesta a ello, la Presidenta comenta que se ha decidido no dividir en lotes el contrato por razones de eficacia. Tampoco se puede primar al comercio local de Getxo porque la ley no lo permite.

Con respecto a los productos “kilometro 0”, hay que señalar que no hay una certificación oficial de los mismos, además de no ser posible su inclusión por ley ya que mermarian la competencia.

En el caso de la nutricionista, no se ha planteado en ningún momento su inclusión en la Relación de Puestos de Trabajo de la Residencia debido a que no hay una necesidad diaria de la misma, sino más bien puntual. Sí es importante que los menús tipo están elaborados por una nutricionista y que en un momento dado se puedan hacer determinadas consultas, pero no se necesita la presencia en la propia Residencia.

Todas estas cuestiones se han consultado con el Departamento de Contratación del Ayuntamiento

La Gerente explica que en otras ocasiones hemos tenido suministro de alimentos por lotes, pero que el tipo de contrato sacado a licitación nos resulta más eficaz y completo al unificar todo el proceso. Por un lado, el servicio de nutricionista nos asegura unos menús óptimos y, por otro lado, el control y seguimiento del sistema APPCC en la Residencia, nos ayuda en los controles que hay que hacer de calidad y seguridad alimentaria, obligatorios por Sanidad, controlando el adjudicatario todo el proceso desde la materia prima hasta la elaboración final del producto a través de diferentes analíticas.

GUK-Getxo interviene señalando que el pequeño comercio tiene que cumplir también con el sistema de APPCC. La Gerente responde que por supuesto, pero que lo que la Residencia consigue con este tipo de contrato es que el mismo licitador que suministra la materia prima controle todo el proceso de APPCC, no sólo de la materia prima que reparte, sino del producto ya elaborado y terminado.

Beste alde batetik, GUK-Getxok erakunde ofizialek emandako zigilu ekologikoak ere aipatu ditu. Gerenteak azaldu du ingurumen jasagarritasun eta elikadura kalitateko zigiluak hobekuntzen atalean jaso direla, zerranda ireki batean, betiere ofizialak badira.

GUK-Getxok erantzun du pleguetan ekarpenak egiteko aukerarik ote dagoen. Lehendakariak azaldu du Lehendakartzaren kontratazio bat dela eta lizitazioa dagoeneko argitaratuta dagoela.

Aztertzeo gai gehiagorik ez dago, eta batzarra goian adierazitako eguneko 17:55ean bukatu da. Beraren emaitzarekin akta hau egin da. Aktaren edukiaren fede ematen dut, Kontseiluko idazkari naizen aldetik.

Por otro lado, GUK-Getxo alude también a sellos ecológicos emitidos por organismos oficiales. La Gerente responde que los sellos de calidad alimentaria y sostenibilidad medioambiental están recogidos en el apartado de mejoras en una lista abierta siempre que sean oficiales.

GUK-Getxo pregunta a ver si se pueden hacer aportaciones a los pliegos. La Presidenta responde que es una contratación de Presidencia y que está ya publicada la licitación.

No habiendo mas asuntos que tratar, se levantó la sesión a las 17:55 horas del día de la fecha señalada en el encabezamiento, extendiéndose con su resultado la presente Acta, de cuyo contenido doy fe, como Secretaria del Consejo.



PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA



IDAZKARIA
LA SECRETARIA

